

Oinarrizko Datuen Dokumentua

Helburua

Dokumentu honek inbertsio-produktu honi buruz jakin behar duzuen funtsezko informazioa emango dizue. Ez da material komertziala. Legeak exijitutako informazio bat da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta mozkin nahiz galera potentzialak zuei ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin alderatzen laguntzeko.

Produktua

Produktuaren izena: Kutxabank errenta-asegurua

Adineko bi aseguratuentzat: 75

Entitate Aseguratzailea: Kutxabank Vida y Pensiones, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.U., IFK: A48272363 eta egoitza soziala: Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia. Informazio gehiago lortzeko, deitu 94 401 83 30 telefonora.

Agintaritza eskuduna: Produktu hau Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (APFZN) ikuskatzen du.

Produktzio-data edo azken berrikuspenaren data: 01/04/2026

Zer da produktu hau?

Mota

Produktu hau Biziarteko Errentako Bizi Aseguru Indibiduala da, kapital aseguruarekin heriotza gertatuz gero, eta prima bakarrarekin kontratatzeko modukoa.

Epea

Produktu honek ez du muga-egunik, biziarteko izaera du.

Helburuak

Produktu honen helburua Aseguratuari biziarteko errenta periodikoa bermatzea da eta, aldi berean, Onuradunei Aseguratuaren heriotzagatik prestazio bat bermatzea. Produktuarekin espero den errentagarritasuna eta jaso beharreko errenta gordinaren zenbatekoa kontratazioa egiten den unean ezarriko dira eta aldaketarik gabe iraungo dute finantza-merkatuen gorabeherak kontuan izan gabe.

Produktuaren xede den txikizkako inbertitzailea

Produktua aukera ona da, likidezia izanik, beste diru-sarrera batzuk osatuko dituen zenbateko bermatu bat aldiro-aldiro jasotzea bermatu nahi duten pertsonentzat. Produktu hau inbertsioa bizitza osorako mantentzeko prest dauden inbertitzaileentzako pentsatuta dago. Horregatik, ez zaie gomendatzen kapitala bat-batean eskuratu nahi duten inbertitzaileei.

Aseguru-prestazioak eta kostuak

Produktu honek bi prestazio-mota bermatzen ditu:

- Zenbateko finkoko errenta periodikoak ordaintzea, Aseguratueto bat bizi den bitartean. Biak hiltzean, errenta iraungi egingo litzateke.
- Aseguratuak hiltzean, egindako ekarpenaren berdina izango den heriotza-kapitalaren ordainketa egingo zaie haren Onuradunei; hau da, prima bakarra.

Produktu honek erabateko erreskate aurreratuaren aukera eskaintzen die Aseguratuari kontratuaren indarraldiko edozein unetan. Ez dago erreskate partzialaren aukerarik. Erreskatearen balioa erreskatea eskatzen den egunean lortutako honako hiru zenbateko hauetan txikiena izango da:

- Hornidura matematikoa ken desinbertsio-kostua, desinbertsio-kostua positiboa bada, edo, bestela, hornidura matematiko osoa.
- Dagozkion inbertsioak egiteko balioa.
- Heriotza-kapitala.

Desinbertsio-kostua bi hauen arteko diferentzia izango da: batetik, etorkizuneko prestazio aseguratuen balioa erreskatea eskatzen den egunean, hasierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik, eta, bestetik, balio bera, amaierako erreferentzia-tasaren arabera eguneratze finantzario-aktuariala kontuan izanik (EURIBOR 30 urtera + % 0,60). Egungo balioa kalkulatzeko, aipatutako tasak erabiliko dira kontratazio-unean muga-eguntzat ezartzen den egunera bitartean eta, ordutik aurrera, kontratuan xede horretarako ezarritako interes-tasa erabiliko da eguneratze-tasa gisa.

Errenta-prestazioak eta heriotza-kapitala bermatuta daude aseguru-poliza Aseguratuak hil arte indarrean mantenduz gero. Hala ere, **Aseguratuak erreskate aurreratuaren eskubidea erabiltzen badute, inbertitutakoa baino zenbateko txikiagoa jaso ahal izango lukete, erreskate-balioa finantza-merkatuen portaerari lotuta baitago.**

Dokumentu honetako kalkuletarako, Aseguratuaren bizi-itxaropena ken haien adina –hau da, 18 urte– hartzen da batez beste gomendatutako mantentze-alditzat.

75 urteko bi Aseguratuaren kasuan, 10.000 €-ko inbertsioarekin edo prima bakarrarekin, heriotza-estalduraren prima 0 €-koa izango litzateke, eta inbertsioaren errentagarritasunaren gaineko inpaktua % 0(e)koa izango litzateke gomendatutako aldiaren amaieran.

Ekizleak alde bakarretik deusezta dezake kontratua Aseguru Eskabidea betetzeko orduan arriskuaren kalkuluan eragiten duen errezeloren bat edo zehaztasunik eza sortzen bada.

Zer arrisku ditut eta zer lor nezake trukean?

Arrisku Adierazle
Laburtua (AAL)



Arrisku-adierazle laburtuak ziurtzat ematen du hil arte mantenduko duzuela produktua. Benetako arriskua asko aldatu daiteke irteera aurreratua eginez gero; beraz, gerta daiteke diru gutxiago berreskuratzea.

- Arrisku-adierazle laburtua produktu honek beste batzuekin alderatuta duen arrisku-mailari buruzko gida da. Produktuak, merkatuen eboluzioagatik edo ezin dizugulako ordaindu, dirua galtzeko dituen posibilitateak erakusten ditu.
- Produktu honi 2 arrisku-maila eman diogu 7ko eskalan. 2 horrek arrisku txikia esan nahi du.
- Ebaluazio horrek txikia gisa kalifikatzen du etorkizuneko errentagarritasunetan galerak izateko posibilitatea, eta oso inprobablea gisa merkatuaren kointura txar batek Kutxabank Vida y Pensiones-ek zuei ordaintzeko ahalmenean eragiteko probabilitatea.
- Produktu honek ez dauka inolako babesik merkatuaren etorkizuneko bilakaeraren aurrean. Beraz, gerta daiteke zuen inbertsioaren zati bat edo inbertsio osoa galtzea.
- Ezin badizuegu zor zaizuen ordaindu, inbertsio gutzia galdu ahal izango zenukete (ikusi atal hau: “Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensiones-ek ezin badu ordaindu?”).

Errentagarritasun-egoerak

Aurkeztutako zenbatekoek barne hartzen dituzte produktu beraren kostu guztiak. Zenbatekoek ez dituzte kontuan hartzen zuen egoera fiskal pertsonalak, baina horiek ere eragina izan dezakete jasotzen duzuen zenbatekoan. Produktu honetatik lortzen duzuen merkatuaren etorkizuneko bilakaeraren arabera izango da, baina bilakaera hori ezezaguna da eta ezin da zehaztasunez iragarri.

Erakusten diren agertokiak iraganeko emaitzetan eta hipotesi jakin batzuetan oinarritutako irudikapenak dira. Merkatuek oso bilakaera desberdina izan dezakete etorkizunean.

Gomendatutako mantentze-aldia: Biziartekoa

Inbertsioa / Aseguru-prima: 10.000 EUR

Biziraupen-egoerak

Biziraupen-egoerak		Irteera urtebete igaro ondoren egiten bada	Irteera 9 urte igaro ondoren egiten bada	Irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada
Gutxienekoa	Inbertsioaren zati bat edo osoa gal dezakezu			
Tentsio	Kostuak kenduta jaso dezaketena	3.642 EUR	3.111 EUR	5.179 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	%-64,6	% -17,4	%-6,3
Txarra	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	6.921 EUR	3.111 EUR	5.179 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	%-31,2	%-17,4	%-6,3
Moderatua	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	8.228 EUR	5.134 EUR	5.240 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	%-18,0	%-8,9	%-6,1
Ona	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	9.435 EUR	9.986 EUR	5.670 EUR
	Urte bakoitzeko batez besteko errendimendua	%-5,7	%0,0	%-5,1
Prestazioen egoerak – Kontingentzia aseguratuak				
Biziarteko Errentak	Kostuak kenduta jaso dezakezuna	283 EUR	2.547 EUR	5.093 EUR
Heriotza-kapitala	Kostuak kenduta zure Onuradunek jaso dezaketena	10.000 EUR	10.000 EUR	10.000 EUR

Taula honetan aseguru-kontratuaren iraupenean jaso dezaketen dirua ageri da, bizi-itxaropenaren eta egoera ezberdinen arabera kalkulata, 10.000 euro inbertituz gero.

Aurkeztutako egoerek zure inbertsioak izan lezakeen errentagarritasuna adierazten dute. Beste produktu batzuen egoerekin aldera ditzakezu. Biziraupen-egoeretan honela kalkulatu da biziarteko errentaren errentagarritasuna: (i) eurotan (bezeroak jaso dezakeena), kontuan hartutako aldiaren amaiera arte ordaindutako errentei gastuak kendutako erreskate-balioaren kalkulaturako zenbatekoa, kontuan hartutako iraupen bakoitzari legokiokeena; (ii) ehunekotan (urte bakoitzeko batez besteko errendimendua), kontuan hartutako aldiaren amaiera arteko errenten zenbatekoa, eta kontuan hartutako aldi bakoitzari legokiokeen gastuak kendutako erreskate-balioaren zenbatekoa kontuan hartuta.

Tentsio-agertokiak merkatuen muturreko baldintzetan jaso ahal izango zenuketena erakusten du.

Zer gertatzen da Kutxabank Vida y Pensiones-ek ezin badu ordaindu?

Txikizkako inbertitzaileak finantza-galerak izan ditzake Kutxabank Vida y Pensiones-ek ez ordaintzeagatik eta ez dago kasu horretan txikizkako inbertitzailea babesten duen konpentsazio- edo berme-erregimenik. Aurrekoa alde batera utzita, Kutxabank Vida y Pensiones-ek araudi zorrotza bete behar du ikuskapen- eta kaudimen-arloan, aseguru-entitateek ez ordaintzeko probabilitatea oso txikia izatea helburutzat duena. Kutxabank Vida y Pensiones-ek araudi horretan ezarritako kaudimen-eskakizunak betetzen ditu. Halaber, Espainian bada erakunde publiko bat –Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoa izenekoa–, zeinaren eginkizuna aseguru-kontratuaren hartzekodunak babestea den, hura likidatzen bada edo hartzekodunen konkurtsoan sartzen bada. Erakunde horri buruzko informazio gehiago www.conorseguros.es helbidean daukazu.

Zein dira kostuak?

Kostuak denboran zehar.

Koadroek kostu-mota desberdinak estaltzeko inbertsioetik kentzen diren zenbatekoak erakusten dituzte. Zenbateko horiek inbertitutako diru-kopuruaren eta produktuaren mantentze-denboraren arabera dira. Hemen adierazitako zenbatekoek erakusten dute zenbateko jakin batek inbertsio-epe posible desberdinetan egindako inbertsioaren adibide bat.

Honako kasu hauetatik abiatu gara:

- Lehenengo urtean, inbertitutako zenbatekoa berreskuratuko zenukete (urteko etekina: % 0). Gainerako mantentze-aldiei dagokienez, produktuak agertoki moderatuan erakusten den bezala eboluzionatzea aurreikusi dugu.
- 10.000 EUR inbertitzen dira.

	Irteera urtebete igaro ondoren egiten bada	Irteera 9 urte igaro ondoren egiten bada	Irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada
Kostu osoak	200 EUR	200 EUR	200 EUR
Kostuen urteko intzidentzia (*)	%2,1	%0,5	%0,5

(*) Mantentze-aldian zehar kostuek urtero beren errendimendua nola murrizten duten islatzen du. Adibidez, irteera eginez gero gomendatutako mantentze-aldia amaitu ondoren, urtero lortzea aurreikusten den batez besteko errendimendua %-5,6 izango da kostuak kendu aurretik, eta %-6,1 kostuak kendu ondoren.

Kostuen osaera

Ondorengo taulak honako hauek adierazten ditu:

- Kostu-mota desberdinek gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran inbertsioaren errendimenduan izan dezaketen inpaktua, urte bakoitzari dagokiona.
- Kostu-kategoria desberdinen esanahia.

Sarrerako edo irteerako kostu bakarrak	Kostuen urteko intzidentzia, irteera gomendatutako mantentze-aldiaren ondoren egiten bada	
Sarrerako kostuak	Inbertsio hau egitean ordainduko duzun zenbatekoaren %0,5.	%0,5
Irteerako kostuak	Irteerako kostuak "Ez da aplikagarria" gisa adierazten dira hurrengo zutabearen, ez baitira aplikatzen baldin eta produktua mantentzen bada gomendatutako mantentze-aldiaren amaierara arte.	Ez da aplikagarria
Urtero kendutako kostu korranteak		
Kudeaketa-komisioak eta beste administrazio- edo funtzionamendu-kostu batzuk	Azken urteko kostu errealetan oinarritutako estimazioa da.	Ez da aplikagarria
Eragiketa-kostuak	Zure inbertsioaren balioaren %0 urtean. Produktuaren azpiko inbertsioak erostean eta saltzean sortzen ditugun kostuen estimazio bat da. Zenbateko erreala kontsumitu eta saltzen dugun kopuruaren arabera izango da.	Ez da aplikagarria
Baldintza espezifikoetan kendutako kostu osagarriak		
Errendimendu-komisioak	Ez zaio inolako errendimendu-komisiorik aplikatzen produktu honi.	Ez da aplikagarria

Zenbat denboran mantendu behar dut inbertsioa eta atera al dezaket dirua aurrerapenez?

Gomendatutako mantentze-aldia. Aseguratuak hil arte.

Errenta-produktu honen ezaugarriak kontuan hartuta, aseguria bizitza guztian zehar mantentzea gomendatzen da, Aseguratuak hil arte. Nolanahi ere, Aseguratuak erreskate osorako eskubidea egikaritu ahal izango dute, produktua indarrean dagoen edozein unetan, "Zer da produktu hau?" atalean zehazten den moduan.

Nola egin dezaket erreklamazioa?

Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren harremanetarako datuak:

- Kutxabank Seguros-en Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, helbidea Euskadi plaza, 5 - 28. solairua - 48009 Bilbo, Bizkaia.
- E-posta: atencion.asegurado@kutxabankseguros.es.

Beste datu interesgarri batzuk

Kontratazioaren aurretik, dokumentu honetaz gain, produktuaren aurretiazko informazioaren orria ere emango zaizue.

Errentagarritasun- eta kostu-agertokiaren koadroetan aurkeztutako zenbatekoak 75 urteko bi Aseguraturentzat kalkulatu dira, eta dokumentu honen eguneratze-datari dagozkion merkatu-datuekin. Kontratazioa egiteko unean, benetako baldintzak dokumentu hau egiteko erabili diren desberdinak izan daitezke.